

gizartearen garapena Jamaikan. 1770-1820 doktore tesia argitaratu zuen, Oxford University Press-ekin.

Ordurako, emana zuen *Esklaboaren herri kultura Jamaikan* saiakera (1970). Trilogia poetiko batekin deitu zuen irakurlearen arreta lehenik, hala ere. *Igarotze-ko eskubideak* liburuan (1967),

1955ean, Afrikara joan zen irakasle, Ghanara. Han hazi zitzaizkion sustraia eta ahots literarioa loratu

'Arribantak: Mundu Berriko trilogia bat' bilduma poetikoa da, askoren ustez, Kamauren lan goren

Karibearen eta Iparramerikaren artean beltzek egindako bidaia imaginarioa azaldu zuen. *Maskarak* poema sortan (1968), Afrikatik Latinoamerikarainoko esklabo garraiorako ibilbidea kontrako norabidean egitea proposatu zuen. *Uharteak* lanean (1969), azkenik, Mundu Berrira itzuli eta Karibeko abertzaletasuna aztertu zuen. Hiru poesia lanok batera eman zituen, 1973an, *Arribantak: Mundu Berriko Trilogia bat* izenburupean. Askoren ustez, idazlearen lan goren da.

«Hizkuntza nazionala»

Poesiatik kanpo ere, lan mugariari eman zituen, kulturaren historia ikertuz, Afrikako tradizioak, jazz eta reggaea uztartuz. *Beltz & Blues* saiakera (1976) da lan horietako bat. *Ahotsaren historia: hizkuntza nazionalaren garapena Karibeko poesia anglofonoan* (1984), berriz, Karibeko hizkeraren inguruko ikerketa garaikide garrantzitsua da. «Hizkuntza nazionala» deitzen ziona kreolera, ingeles eta Karibeko beste hainbat hizkeraren nahasketa bat zen, bere erritmo eta tinbre afrikarrekin. Jamaikako herriar xeheek darabilten –eta eliteek mespretxatzen duten– kreolera uharteko eskola guztietako ikasketa programetan sartzea lortu zuen.

Edward Kamaux Brathwaitek hamaika aitortza eta sari jaso zuen bizi artean. Aipatu Guggenheim eta Fulbright bekak jaso zituen 1983an, esaterako. Eta Neustadt saria 1994an, Griffin saria 2006an, Kubako Casa de las Americas saria 2011n eta Robert Frost domina 2015ean. Aurtan bertan, Bocas Henry Swanzy saria emana zioten Karibeko letrei egindako ekarpenarengatik.

Ezin ahaztu zer garen

Irati Majuelo

Iruñea Hiria poesia lehiaketa irabazi zuen Mikel Arruabarrenak poema-bilduma honi esker. Egitura sinple eta soila dauka: izenbururik gabeko bi atal, izenik gabeko hama-bosna poema eta liburuaren titulu bera daukan azken poema bat, zikloa ixteko. Atalen sarreretarako hautatutako erreferentziei esker susma dezakegu zer dakarren idazle berri honen lehen lan argitaratuak.

Doris Lessingen aipu batek irekitzen du lehendabiziko atala, esanez denbora dela gure pentsamenduen hostoak ahanzturara daramatzan ibaia. Horrela bada, atal honetan Arruabarrenak poesian ohikoa den denboraren iraganari buruzko kezka agertzen du: «Denbora da hemen aurrera egiten duen

bakarra, / bizitza pasa egiten da». Idazleak, ordea, ez dihardu zahartzeari edota atzean utzitakoaren nostalgiari buruz; ahanzturaren beldurra ekartzen du lehen lerroa. Ez dago ahanzturari ihes egiterik, eta ideia horretatik tiraka azaleratzen dira bes-



'Ahanzturaren bezperan'

Idazle: Mikel Arruabarrena Larrarte.
Argitaratzaile: Denonarte.

Mozorro aldaketa



Imanol Mercero

Txilinu buelta bildumaren barruan proposatzen den ipuin eraldatua da honako hau. Egitasmoak bederatzi ipuin dauzka aurreikusita, Txanogorritxoren hau barne.

Ipuin klasiko ospetsuak ardatz hartuta, kontakizunei buelta ematen diete, gaur egungo gizartearekin bat datozen balio aldarrikapenekin jantzita.

Kasurako Txanogorritxo. Ipuinaren bertsiu berrian neskato indartsua da, kementsua eta ausarta bezainbeste. Osoa, giza-jale izanik ere, telebista aurrean litxarreriak janziz makaldutako piztia da, neskatoa baino ahulagoa, eta ergelagoa ere bai. Kontakizuna bat etorriko da estereotipo berri hauengandik espero daitekeen ondorioetan: neskatoak gidatuko ditu ekintzak eta, amaieran, osoak astinduko galan-

ta jasoko du, bere asmo txarrekin inor zauritu aurretik.

Ohar pare bat: *jatorrizko* bertsiota irakurri behar da, *berriak* kontakizuna oso azaletik egiten duelako. Eta bi: batean zein bes-tean, haurrari irakaspen moralak eman nahi zaio; garaian garaiko moralak da aldatzen den bakarra. Egileak ez dira ohartu, nonbait, gaitzetsi beharrekoa moralak *irakasteko* ahalegina bera dela.



'Txanogorritxo indartsua'

Idazle: Vivim del Cuento taldea.
Ilustratzaile: Albert Vito.
Itzultzaile: Amets Santxez.
Argitaratzaile: Ibaizabal.

telako gaiak: egin gabekoaren damua, hautuak dakarren gale-
ra, heriotzaren osteko ahaztea eta harremanen ahitzea.

Behetik gora doa liburuaren lehen atal hau. Hasierako poemak nahasi samarrak gerta daitezke, eta esango nuke izenbururik ez edukitzeak ez diela laguntzen: zenbait poema-lerro airean geratzen dira, interpretazio libreari ardura gehiegi emanez, eta ondorioz irakurlea galdurik ibil daiteke. Hala ere, gero eta indar gehiago hartzen doaz, lerro banaketak argitzen, eta poemek osotasun handiagoa lortzen dute azkenerako. Hortaz, lehen atalaren amaierarako, esaldi indartsuak topatzeaz gain, ahots poetikoa ere sendotzen da gaiak eta egoki lotutako ideiek bat egin ahala.

Lisabören kanta batek aurkezten du bigarren atala, eta hasieratik geratzen da argi idazlearen hausnarketagaia aldatu dela: lehen munduko problemen erositutasunak uzten ditu agerian Arruabarrenak, eta bere jarrera argi utzi: «Zenbaitetan beharrezko dugu oroitzea/ azal-azaleko txikikeriatan itotzen ohitu

garela». Denborari buruzko galdera filosofikoak alde batera utzi, eta arazo garaikideetara jotzen du bete-betea: hondamendi ekologikoa, turismoa, apustu-etxeak, Mediterraneoko heriotzak, teknologiak dakarren simulakro eta bakardade sententzia. Eta, batez ere, horren aurrean lehen munduko daukagun errua, indiferentzia eta erosotasuna. Hau da, giza-kion miseria erakusten dizkigu edergarri gabe, liburu boro-biltzen duen *Ahanzturaren bezperan* izeneko azken poemak azpimarratzen duenez.

Bigarren atal honek bizitasun handiagoa dauka, aurrekoaren amaierako erritmoari eusten dio, eta une batzuetan irmotasun handiagoa aurkitzen du. Oreka atal osoan zehar guztiz mantentzen ez badu ere, nabari da poema helduagoak direla, eta begirada konkretu bat bilatu duela Arruabarrenak, pesimista baino errealistagoa. Arrasto intergarria utzi du, beraz, idazle berri honek, estilo propioa atxiki eta desorekak finduz gero etorkizuneko idatzietan arretaz jarraitu beharko duguna.

Jazarpen matxista



Imanol Mercero

Nerabe-bikoteen barruko jazarpen matxista gai hartuta osatutako narrazioa da, «eleberrirako» deitzen den generoan sartzen diren horietakoa. Istoria kronika gisa kontatuta dago, narrazzailea lekuko papelean kokatzen delarik. Jazarria bere lagun mina da, eta irakurleari arnasa pixka bat ematen dio horrek, narrazzailearekin batera distantzia apur batez jarrai ditza-keelako gertakariak. Alde horretatik, azpimarratu behar da testua ez dela gordinkerietan erortzen, eta saiatzeko dela sentsazionalistatzat har litezkeen pasarteak ez agertzen.

Halako jazoeren ereduak adibidetzat har daitezke, pausoz pausoz, bikoteak igarotzen dituen fase guztiak deskribatzen direlako.

Kontakizunak badu errealismo magikoaren ukitu bat. Protago-

nistak bere izebaren bidez koadermo berezi bat jasotzen du, jazoera guztien iragarle dena. Inork ez jakin nola, koadermoan etorkizuneko irudiak agertzen dira, argi adierazten dutenak lagun taldea osatzen duten nesken geroa. Egia esan, obraren parterik ahulena da hau, kontakizunarekin nekez josten den fenomeno baina.

Liburu honek Gazte Narratibako XVIII. Alandar saria irabazi zuen.



'Ez naiz isilduko!'

Idazle: Manuel J. Rodríguez.
Itzultzaile: Aitor Arana.
Argitaratzaile: Ibaizabal.